

Kataluniako 'Procés'-aren aurkako epaiaren aurrean, preso eta erbesteratu politikoei, herriari eta erakundeei elkartasuna

1. Hernaniko Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriaren 1eko erreferenduma tresna demokratikoa eta zilegizkoa izan zela, eta Kataluniak eta Euskal Herriak berezkoa dutela etorkizuna erabakitzeko eskubidea.
2. Hernaniko Udalak argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Espainiako Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.
3. Hernaniko Udalak adierazten du "Procés"-aren aurkako epaia amorragarria eta bidegabea dela. Aurrekari juridiko oso arriskutsua da, desobedientzia zibila, manifestaziorako eskubidea eta adierazpen askatasuna kriminalizatzen dituelako. Eskubide eta askatasun horiek sedizio delituekin lotzen ditu eta horrek ez dio gatazkaren konponbideari inolako ekarpenik egiten.
4. Hernaniko Udalak nabarmentzen du Kataluniako 'Procés'-aren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.
5. Hernaniko Udalak azpimarratzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere, herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten du. Eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. artikulua ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarri erantzuten dio, irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordez eta herriari galdetu beharrean.
6. Hernaniko Udalak Estatuko botereei eskatzen die, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utz ditzala eta, era berean, erbesteratu politikoen aurkako auzibideak bertan behera utz ditzala.
7. Hernaniko Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei, hala nola, Kataluniako herriari eta erakundeei, eta Hernaniko herritarrei dei egiten die bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.

Hernanin, 2019ko urriaren 16an

EH Bildu, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos-Orain Hernani udal taldeak